

TXIKITTO

2011ko urria

122



Munduko paisaiak
HURBILTZEN



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ekhi Belar, Koldo Mitxelena
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,
Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Irailaren 23an, **Urkizuko LH** osoa Arratera joan ginen. Eguraldi ederra egin zigun eta primeran pasatu genuen.

Urriaren 17tik 21era, kurtso honetako lehenengo euskara kanpaina egin genuen Urkizun: "Nork nahi du Argitxori lagungu?" izena izan zuen kanpainak. Talde batzuek kanpaina ongi burutzea lortu zuten zuten opari ederrak jaso zituzten.

Urriaren 17tik 28ra, Urkizu Eskolako 2. mailako ikasleek igeriketa kanpaina izan zuten Ipurua kiroledegian.

Urriaren 19an, Urkizuko 2. zikloko ikasleak Pagoetara joan ziren.

Urriaren 24an, Urkizu eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleek Laboralean Robin Hood antzerkia ingelesez ikusteko aukera izan zuten.

Urriaren, Urkizuko 3. zikloko ikasleek Udal Liburutegiaren bisitaldia egin zuten.

Kaixo lagunok! Oporrak atzean utzita gogoarekin ekin diogu kurtso berriari eta **La Salle** Isa-sikoak hemen gaude berriz ere zuekin gure esperientziak konpartitzeko prest!

- 1.go eta 2. mailakoak Arrate eta San Pedron egon ziren Irailean mendi buelta egiten. 5. eta 6. mailakoak berriz, oinez igo ziren Arratera.

- 3. eta 4. mailakoak Donostiako zinemaldiko izarren artean ibili ziren.

- Bestalde, Haur Hezkuntzako 4 urtekoak **HORTON** pelikula ikusten egon ziren Koliseoan eta 5 urtekoak Barrian egun bi pasa zituzten Urriaren 10 eta 11-n.

Ekin gogor eta hurrengora arte lagunok!



Arrateko Andra Mari Ikastetxetik, kaixo lagunok! Ikasturtean martxan gaude jada, orain arte izandako eguraldi onak udan gaudela pentsarazten badigu ere. Badakigu zuek ere jo ta ke ari zarete lanean, gu bezala, eta gauza pila bat egin duzuela eta beste morderoxka bat prestatzen ari zarete.


Ikasturte hasieran, irailaren 19, 20 eta 21ean 3. eta 4. mailakoak Batzera joan ziren hango baserri eskolara. Baserri mundua ezagutzen ahalegindu ziren eta taldeko harremana sendotzen ere.

Urriaren 10ean, 4 eta 5 urtekoak Coliseora joan ziren Horton elefantearen istorioa ikustera.

1. eta 2. mailakoak hostoak biltzen ibili dira eskola inguruan, Urkitik Txontarako bidetik, eta 3 eta 4. mailakoak inguruko zuhaitzen jarrapena egiten ari dira, momentu desberdinetan aztertuko dituztelarik. Kontatuko digute guzti honen berri.



Eskolako liburutegian "Liburuen altxorra" izan dugu. Sekulako liburu morderoxka ekarri digute altxor kutxa batean eta oso gustura ari gara irakurtzen, benetan gozatzeko liburuak daude eta. Beno lagunok, hurrengo arte! Beste gauza pila bat prestatzen ari gara eta kontatuko dizuegu!





DENBORAPASAK

Lagundu arratoiari bere gasta fortzen:



- 1. Gonia
- 2. Undima
- 3. laranja
- 4. zuria
- 5. Itsako marrok
undin ikumez
ene pasatu

Dand Ezearti

DENBORAPASAK

Geitu zenbakiak eta armetu norik irabazten duen.




$2+4+6+28+28+2+30+2+2+1+4+1+1+1$	META	
$10+5+2+3+4+6+7+8+9+2+1$	META	
$5+4+9+1+10+5+5+6+4+3+7+2+8+6+4+7+3$	META	
$6+6+8+9+1+5+2+3+2+8+28+2+2+2+2+2$	META	



112 KM DAUDE.

LEHENGO MARBOTO PERTSONA ZENBAKIEK ADIERAZTEN DUTEN
NORJAN GERO ASINATU NOR DEN.



GARRIA → 1
URDINA → 2
URDINILUNA → 3
BELTZA → 4
HARAGI KOLDREA → 5

NOR IZANGO DA? _____

5. maila Aldatze
ANIE ERKIAGA
MAITE IZQUIERDO
MARIA SANZ
MIKEL OSORRO

TXISTEAK

-Zuk otoitz egiten duzu bazkaldu baino lehen?

-Ez, nire etxean gurasoek bazkari goxoak egiten dituzte.

JAVI



-Zer esaten dio zapata batek beste zapata bati?

- Zeinen bizitza herrestatua daramagun!

LAURA VALVERDE

Maisuak Jaimitori galdetzen dio:

-Jaimito, zenbat dira bi gehi bi?

-Auskalo! Ez badizkidazu datu gehiago ematen...

IBAI QUINTANA



-Zein da matematiko baten kolmoa?

-Zuhaitz bat landatzea eta erro karratua ateratzea.

MARKEL GIL

Tarzanek sagu bati esaten dio:

-Hain txikia eta bibotearekin?

Eta saguak erantzuten dio:

-Eta zu, hain handia eta pardelarekin?

PATXI CORDEU

Behin batean mamu bi elkartzen dira eta batak besteari esaten dio:

-Non zaude?

Eta besteak erantzuten dio:

-Zure ondoan nago, baina ez gara ikusten gardenak garelako.

MAITANE AREVALO

Emakume bi elkartzen dira eta xeble samarrak izaki, emakumeak diren bezala bat bestea inbidiatan jartzeko esaten dio:

-Badakizu? Nire gizonak kotxe berria erosi du, Volkswagen GE-TE-I.

Eta besteak, honela, pixka bat gaizki hartuta:

-A bai? Ba nireak berea erosi du: Mercedes JO-DE-TE.

MARTA RODRIGUEZ



Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

- Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puskarrek ez dute usainik.
- Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!
- PRRRRRR!
- Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
- Ipurdian?
- Ez, gizon, sudurrean!

NOA PUELLES



Egun batean neska batek bere amari esan zion ea kalean kaka egin ahal zuen, eta amak baietz esan zion. Orduan, neska kalera atera eta kaka egin zuen. Bapatean, kamioi bat pasatu eta 'Pi-Pi' egin zuen.

Neskak orduan:

-Bai, zuk 'Pi-Pi', baina nik 'kaka'.

JON DE LOS TOYOS



Irakurketara hurbiltzen

Liburu Azoka joan da dagoeneko, baina liburuak gurean egongo dira beti. Eta zein leku hobeko horretarako Juan San Martin liburutegia baino? Handik luzatzen den eskaintza, behintzat, zabala da, eta abentura, bizipen eta momentu onak pasatzeko aitzia ona daukazu zuek, Eibarko umeei.

Eskaintzen den jardueretariko bat Irakurketa kluba da. Bertan 7 eta 9 urte bitarteko irakurle txikiak hartzen dute parte, baina ez euren bakarrik. Izan ere, gurasoekin batera joaten dira klubaren bileretara eta gurasoek ere garrantzia daukate saio horietan.

Txabi Arnal idazlea da Irakurketa Klubeko dinamizatzailea, eta bertan erabiliko den materialaren %60-70a euskerazkoa izango da. Behinik behin, Eva Alberdi Juan



San Martin liburutegiaren arduradunak adierazi zuenez, liburu bi aztertuko dituzte umeei, eta gurasoek, saio hauetan.

Batetik, euskarazko 'Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo', Werner Holzwarth eta Wolf Erlbruch idazleena. Bertan, bere zulotik irtetzen den sator





baten istorioa kontatzen da, buruan zerbait egin baitiote.

Aztertuko duten beste liburua, berriz, gaztelera izango da. 'La cosa que más duele del mundo' izenburua dauka beste liburua, eta Paco Liván eta Roger Olmos idazleen lana da. Erbi eta hiena baten arteko elka-

rizketa da bertan kontatzen dena.

Eva Alberdiren berbetan, euskeraz gehien irakurritako liburuak 'Hiru Mariak', 'Bilbao-New York-Bilbao' eta 'Perla' dira.

Munduko Paisaiak: Txina

Txina protagonista izango da aurten gure herrian. Izan ere, Munduko Paisaiak programaren barruan Asiako herrialde hau aztertuko da. Horrela, hango kultura ezagutu, hemen dauden txinatarrengana hurbildu, marioneta tailerra, papiroflexia tailerra, adopzioen gaineko hitzaldiak (adoptatu dutenen esperientzia)... izango dira, Txinako ohiturak ezagutzearekin batera.

Juan San martin liburutegira hurbiltzeko aitzakia badago, behintzat. Eta ez gutxi!



Behi itxurako itsulapikoa

Zure dirua behi batek zaintzea nahi duzu? Ba eskulan honekin behi itxurako itsulapikoa egingo dugu (edo nahi izanez gero, zulo handiagoa eginez gero boligrafo, arkatz eta bestelakoak gorde ditzakezu). Onena da eskulana egiten ondo pasatzea eta nahi duzun heinean hura moldatzea.

MATERIALA:

- Kartoizko odia (komuneko paperarena).
- Zereal-kutxa (hutsik).
- Paper-contact txuria.
- Paperezko zinta itsagarria
- Plastikozko ontzia.
- Rotulagailu beltza eta arrosa.
- Paper berdea.

PAUSOAK:

1-Kartoia belarriak eta adarrak marraztu eta mozteko erabili. Ondoren, zinta itsagarriarekin bere tokian itsatsi.

2-Kartoizko odiak erditik moztu eta hankak bezala itsatsi itzazu.

3-Plastikozko ontzia paperezko zintarekin estali, eta ez ahaztu tapatxoan ere ipintzen, hori izango baita behiaren sudurra.



3-Belarri, hanka eta adarren bateraketa disimulatu zintarekin.

4-Behiari kolorea emateko, errotuladore beltza erabili gorputzerako (edo beste edozein margo mota).

5-Kartoizko borobil bi tapan itsatsi sudurra egiteko eta beltzez margotu. Ahotik irtetzen diren belarrak egiteko, bestetik, papel berdearekin tiratxoak egin edo benetako belarra ipini.

6-Zinta pixkatekin bolatxo txiki bi egin begiak egiteko. Paper txuriko zirkulu bi egin (margotu egin ditzakezu ere) eta bolatxoak gainean itsatsi.

7-Orbanak egiteko paper-contac txuria moztu eta zuzenean margotu.



ANIMALIEN BUZTANA

Garai hartan animaliek ez zuten isatsik. Saltzaile bat gurdi zahar batekin herrira agertu zen arte. Hark zeukan koipe premia! (gurdiak, esan nahi dut). Badakizue zer zekarren? Buztanak, gurdi bete buztan. Denak desberdinak. Animaliek haren berri izan zutenean berehala jo zuten zuten saltzailearengana. Azeria ibili zen azkarren. Makala da ba azeria... Berak erosi zuen buztanik sendoena eta politena.

Etixerakoan azeriak katuarekin egin zuen topo, hura ere saltzailearengana zihoan. Katuak buztan pintto-pinttoa aurkitu zuen, zetazko suge bat zirudien. Marrak zituen trabesean, zebraren antzera. Eta katua ere pozik.

Etixerako bidean zihoala zaldia ia aurrean hartu zuen, arrapaladan zetorren, trakatran-trakatran... Zaldia ere arin iritsi zen eta nahiko isats polita lortu zuen, ile luzeduna.

Zaldiaren ostean behia agertu zen. Behiak hartu zuen buztana ez zen hain polita, baina euliak uxatzeko nahikoa.

Saltzailea alde egiteko zorian zegoenean, txerria agertu zen lokatzez beteta.

-Berandu zatoz. Bat baino ez daukat -esan zion saltzaileak, buztan motz kiribildu bat erakusten.

-Niri bost axola.
Ekarri!.

Atzean itsatsi zuen eta hor dabil munduan zehar Pepe baino zoriontsuago. Egia esan, zertarako behar du txerriak buztana? Buztanik gabe ere oso pozik bizi zen. Txerriak nahiago du lasai-lasai ibili eta ahal duen guztietan gorputza lokatzetan freskatu.

Gizakia, egun hartan lo zegoen, eta isatsik gabe geratu zen.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



OSAGAIAK:

- 100 g. txokolate-beltz.
- 200 g. irin.
- Natiletarako hautsak.
- 3 legami koilarakada.
- 150 g. azukre.
- Bainilazko azukrea.
- 200 g. gurin.
- 3 arraultz.
- 100 ml. esne.

Postre gozoa da Muffin-a, oso famatua. Baina etxean merendolaren bat edo lagunekin jaitxo bat egin nahi ezkeru, egokia izango da postre hau.

PAUSOAK:

1-Muffinak egiteko erretilu bat eta muffinak egiteko paperezko moldeak behar dira, kasu honetan 12. Txokolatea zatitxoetan moztzen dugu eta 180°C-tan berotzen hasten gara labea.

2-Natilentzako hautsak, legamia eta irina nahasten ditugu ontzi batean.


3-Beste osagaiak ontzian botatzen ditugu, txokolate zatitxoak ezik, eta eskuzko batidorarekin dena nahastu, lehenik abiadura gutxira, eta gero ahal den azkarren masa homogeneoa lortu arte.

4-Txokolatearen bi heren bota eta nahastu.

5-Masa muffinak egiteko moldeetan jarri hauek erdiraino betez (edo pixkat gehiago), eta bestea txokolatzez bete.

6-Erretilua aurrez berotutako labean sartu eta 25 minutuz manetndu barruan.

7-Prest dardenean, erretilutik atera eta hozten utzi.



Txokolatezkoa

MUFFINak

INTERNETEN...



www.kikikomoko.com

Ezagutzen al dituzu Kiki, Koko eta Moko pailazoak? Ba hau duze euren webgune ofiziala! Hirukote honen gainean jakin nahi duzun edozein informazio jasoko duzu bertan. Noiz hasi ziren jakitea nahi duzula? Bada, 'historia' atalean hori eta gehiago irakurriko duzu. Gogoaz daukazula euren ikuskizun bat ikusteko? Bada, 'ikuskitunak' atalean ikusiko duzu nolako saioak eskaintzen duten. 'Argazkiak' atalean, nola ez, pailazoen argazkiak ikusiko dira, eta 'bideo eta diskoak' tokian eurek kaleratutako produktuak daude ikusgai. Amaitzeko, 'marrazkiak'-en klik eginez gero, pailazo bakoitzaren marrazki bat inprimatu eta margoztu dezakezu.

txepetxa.webcindario.com

Oso webgune osotua da hemen aurkeztzen den hau. Denbora ona pasatzeko pentsatuta dagoen webgunea, zalantza gabe. Batetik, jolasak dauzka. Berrogeita hamar jolas baino gehiago aurki daitezke bertan, dibertitzeko haina, duda barik. Eta ondo pasatuz hainbat gauza ikasteko, 'didaktikoak' dioen karratutxoan klikatu eta hainbat eta hainbat ariketa aurki daitezke, dibertigarriak eta hezigarriak. Herri-kirolek ere badute bere ataltxoak, eta lehen orrian mapamundia zabaltzen da mapan bertan klik eginez gero. Denetarik duen webgunea, beraz.



ARIES

Zenbat aldatu zaren udan! Beste pertsona bat ematen duzu-eta! Esan beharra dago politagoa zaudela orain eta besteek igarri dute.

TAURUS

Aitortu ezazu, nolako barrabaskerietan ibili zara udan? Ikusten da oso ondo pasa duzula, behintzat, beti irrifartsu baitzabiltza.

GEMINIS

Kurtso hasieran nahiko makal ibili zara, baina hemendik aurrera gograz egingo duzu etengabe. Zergatik izango ote da?

CANCER

Gauza asko egingo zenituela zin egin zenuen. Bada, noiz egingo dituzu? Agian aho handiegia daukazu.

LEO

Hainbat ohitur aldatzea komeni zaizu, baina bestela oso ondo pasako dituzu hurrengo asteotan. Barre egiteko momentuak.

VIRGO

Artista bat zara! Denetarik dakizu egiten eta, egia esan, ondo egiten duzu! Ez duzu pentsatu telebistara joatea? Txantxa da.

LIBRA

Ez eman guza txikiei garrantzia gehiegi. Baten batek kritika egiten badizu, onera hartu, berak hobetzeko esaten baitzizu.

SCORPIUS

Agian gauza handiegia espero zenituen eta zure nahiak ez dira beteko. Gutxiagorekin konformatzen ikasi beharko zenuke, ezinezkoak diren gauzak bilatu gabe.

SAGITARIUS

Hain burugogorra izango ez bazina, koskorreko gutxiago jasoko zenuke. Ez al zaizu buruan sartzen hainbat gauza ezin dituzula egin?

CAPRICORNIUS

Orain arte udazkena ia uda bezalakoa izan da, baina hotz gero eta handiagoa izango da. Lasai, ondo moldatuko zara!

ACUARIUS

Zaindu eztarria, gaixotu egingo zara bestela. Ez duzu nahi estulka ibiltzea, ezta? Bada, egin kasu eta jantzi jertsea.

PISCIS

Helburu bat lortzeko ez du edozerk balio, gauzak nola egiten duzun garrantzia handia dauka. Beraz, pentsatu nola lortuko duzun nahi duzun hori.

Nagusixen eta umien artian desberdintasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Zelan doia kurso hasieria? Zelan gogoratzen dozuz umetako klasiak?

AMETS CLAVEL, 7 URTE

Ondo doia, baiña oporretan hobeto neguan. Gero, eskolatik gehixen gustatzen jatana matematikak dira.

NAROA MORENO, 8 URTE

Goguakin hasi neban kurtsua, eskolara juateko itxoi-tzen nengua, gustau egitten jatalako juatia. Gitxien gustatzen jatana azterketak egittia da.


AINHOA ARRIZABALAGA, 36 URTE

Lelengo urtietan gogoz juaten nintzan eskolara, gurasuek oporrak luzatzeko asmua eukitzen zebe eta guk ezetz esaten genduan. Lagunak ikustia, andereño barrixak... gustatzen jakun.

IRATXE ABARRATEGI, 41 URTE


Neri gustatzen jatan eskolara bueltatzia. Arkatzak, kuadernuak... estrenatzen genduzen eta, gaiñera, uda ostian lagunak berriro be ikustia politta zan.





FRANZEN ESKOLAKO KONTUAK

Franz zazpi urteko mutiko bat da eta aurten eskola berri batera joaten hasiko da. Han daukan irakaslea ez du oso gustokoa; bere ustez, behar den bezala hitz egiten ez dielako. Horrexegatik, Zirt-Zart deitzen dio. Egun batean, Franzen amonak irakaslearekin topo egiten du eta...



NIRI EZ ZAIZKIT LIBURUAK GUSTATZEN!

Joani jende guztiak liburuak oparitzen dizkio, baina berari ez zaizkio gustatzen. Zertarako balio dute? Joaneke nahiago luke baloi bat lagunekin jostatzeko. Hala eta guztiz ere, egun batean liburuak zertan erabili asmatzen du: futboleko partida batean atea egiteko. Hori bai, erabat aldatzen da dena Joaneke Naiana ezagutzen duenean.



GILLERMOREN LIBURUA

Gillermo mutiko bihurri eta lotsagabeari izebak liburu bat oparitu do, eta, noski, ez dio inolako ilusiorik egin. Irakurtzea aspergarria gertatzen zaio, baina oraingoan gauzak aldatu egingo dira: txandal berdeko gizon misteriotsu bat ezagutuko du eta, hark gidaturik, liburuetan ezkutaturik omen dagoen altxor baliotsu baten bila ekingo dio. Emaizta harrigarria izango da.



TIGREAK HONDARTZAN

Animaliek txiki-txikitatik txunditu dute Ander, hezur-haragizkoek nahiz irudimenezkoek: herriko hondartzan bisitari arrotz batek eginiko hareazko tigre-familiak edota aitona kontakutako Arnoko tigrearen istorioak. Ezbeharrak edota patuak zirkuko bizimodura eraman zuten umetan, jaiotetxetik eta etxeoengandik urrun, Amak, hil aurretik, bere bizitzaren benetako historia gutun batean idatzita utziko dio Ninori.



MONA SAGULISAREN IRRIBARREA

Mona Sagulisak sekretu bat du ezkutuan! Sagunardo Davincik arrasto misteriotsu batzuk ezkutatu zituen bere margolanean... Nire sagur-sudurrak esaten dit ezkutuko altxor bat dagoela nonbait. Entzun duzue hori? Etorriko zarete nirekin? Altxor-bilaketa zoragarria izango da, Stiltonen hitza duzue!




KALIFORNIAKO NESKAK

Kaliforniara joan da Anuxka, Risky eta Ainhoa bere lagunekin batera. Kalifornia oso leku ederra da, oso urruti dago Euskal Herrietik eta, dagokigunez, oso ezberdina da: bertako gazte jendeak ez dauka antz gehiegirik euskaldunokin. Eta gainera jende mota askotakoa dago, gauzak oso diferente ikusten dituen bai maitasun kontutan, bai dirua irabazteko moduan, baita jendea menperatzeko orduan edota etxetik ihes egiterakoan.

XABI

TXORI



FAMILIA

